- **Zer Berri:** Udal aurrekontua ez da onartu
- **Entzutekuak:** Soraluze Futbol Taldeko Batzordeari elkarrizketa

soraluzeko
hamabostekaria **194.** alea
2009ko otsailaren 27an

PIL-PILean



ARATUSTEEN BIXAMUNA

Euskal Herriak behar duen

ALDAKETA

DEMOKRAZIA

3.000.000

BOZKATU

URREZKO BOTOA

OINATZE SILBETI

ARRATE GISASOLA

DEMOKRAZIAREN FESTA

Aupa Arrate!!

Zer moduz zaude, aspaldiko? Konturatu orduko iritsi zaigu zutabea idazteko eguna. Nola pasatzen diren hilabeteak, ezta? Ze garaitan tokatu zaigun idaztea!! Ditxosozko hauteskundeak. Asteburu honetan aukeratuko ditugu hurrengo lau urtetan *"demokraziaren izenean"* herri hau gidatuko dutenak. Paradogikoa da demokraziaren izenean zantzu hutsekin nola utzi dituzten bi alderdi hauteskundeetatik kanpo. Politikariek politika egin behar dela esaten dute, inongo lotsarik gabe, baina uzten al dute? Arrate, ba al dakizu zerk ematen didan amorru gehien? Alderdien legearen aurka dauden alderdietako politikariek, herritarren erabakia ez dutela errespetatuko. Kanpainan zer egin dute bi alderdien presentzia parlamentuan bermatzeko? Ezer ez. Herritarrek aukeratu ez dituzten ordezkariak lasai asko joango dira parlamentura. Noiz izango da eguna alderdien legeari planto egin eta aulkiak hutsik lagako dituztena?

Esaten duenak demokrazian bizi garela, ireki ditzala ongi begiak, ze nire begiek ez dute horrelakorik ikusten! Arrate, ni egoera hau aldatzearen alde nago, aldaketa demokratiko baten alde.

Martxoaren 1ean nire bozka, aldaketaren bozka izango da, herri honek eskatzen eta behar duen aldaketa.

Nire bozka urrezkoa izango da.

> ***Aukeratu ez dituzten ordezkariak lasai asko joango dira parlamentura***
>
> Oinatze Silbeti

> ***Herrixan benetako aldaketian alde sinisten dabenik be bada, dana emoteko prest dagoenik***
>
> Arrate Gisasola

Kaixo Oinatze!!

Denporia zelan pasatzen dan aittatu destazu, konturatu orduko zutabia idazten gagozela berriro... Neri be, zuk ipinittako gaixakin bardin bardina pasatu jata. Hauteskunde batetik pasatu orduko, beste bat dakagula gainian emoten dau.

Hauteskundiak urtero eta aratustiak egun bat bai eta hurrengua be bai. Jantzi dittue gaurkuan be gala traje danak; euskerian aldeko mozorrua, justizia sozialaren karetia, etxebizitza eskubidian fatxada... Danak pintxo pintxo demokraziaren festarako!!

Jende askori entzun detsat politikiakin nazka nazka eginda dagoela esaten, ez dabela horretan sinisten, danak igualak dirala... Ez jakue arrazorik falta baiña herrixan benetako aldaketian alde sinisten dabenik be bada, egunero herrixan alde, dana emoteko prest dagoenik, mozorro barik, zailttasun eta estropozu danen gainetik herrixandako lanian, herrixa maitte dabelako. Nere botuak ez detsa amen egingo herri hau herri egittian oztopueri, nere botuak ez dau kontrol eta jipoirik ekarriko, nere botuak ez destaz lagunak urrunduko... Nik letra harek diñuan moduan, maitte dotena zaintzia nahi dot, maitte dana zaintzian aldekua naiz, hitzez eta ekintzez.

Domekan neu be bozkatzera juango naiz, herri hau maitte dotelako.

Zaindu maitte dozun hori!!

Goguan hartzeko

Inok ez zidan esan euskaldun izatia zein nekeza dan...

Ruper Ordorika, Abeslaria

GUTUNAK

Soraluzeko futbol taldearen azken prentsaurrekoaren arabera, talde honek poz eta onura asko ekarri dotsaz herrixari. Arrazoi honengaittik udaletxiari futbol zelai berri bat eskatzen dotsa. Baina merezi dabe? Aurkittu ezberdinttasunak mutilen eta nesken taldien artian: mutileri irabazittako partidu bakoitzeko *"prima"* bat ematen dotse, neskeri ez; mutilek hiru egun entrenatzen dabe zelaixan, neskek bat; mutilek barixakutako entrenamenduetan *(neskekin batera) "tokatzen"* jakuen zelai erdixan sei argi foko dittuzte, neskek bi; mutilen partiduetan txorixua ta saldia egoten omen da *(goi mailako sukaldaritza azken komunikatuaren arabera)*, nesken partiduetan ez; mutilen helburua kirol arluan mailaz igotzia da, neskena ez *(Sorako juntako baten hitzetan ez dao horretarako dirurik)*; mutilen partiduak zapatuetan dira, neskenak domekatan *(gaztañarreko ferixako asteburuan izan ezik, kasualitatez neskak ferixan egunian jokatu zeben ta mutilak hurrenguan)*; barixakutan mutilak *"lokalen"* aldageletan dutxatzen dira, neskak *"bisitarienean" (arrotzak ote?)*; mutilen ardura nagusixa futbolian jokatzia da, neskena horretaz aparte, taldia osatzerakuan federazioara deittu, talde osua sortu, entrenatzeko lekua aurkittu *(eskolako patixua, kiroldegixa)*, eta beste hainbat betebehar. **SEXISMORIK? NAHIKUA DA!**

Olatz Sebal Larrañaga (delegatu ohia)
ta Jasone Urkijo Jauregizar (jokalari ohia)

Kaixo:

Lerro hauen bittartez eskerrak eman nahi dotsagu Udaletxiari eta baitta Kukumixo Aisialdi Taldiari Aratustietako txokolatadan gluten gabeko jakiak eskaintzigaittik. Zeliakoak kontutan hartu eta beraiengan izandako begirunea-gaittik. Hemendik aurrera beti horrela izango dela espero dugu, guk ere jai-giroan besteek moduan gozatzeko eskubidea dugu eta! Besterik gabe, agur bero bat eta eskerrik asko!

Zeliakoak eta senideak

Laga Udal Gobernuari bere lana egiten

Soraluzeko Udal Gobernu taldeak bere nahigabea adierazi nahi du PNV, PSE eta PPk, berriz ere, politikaren alderik tristeena erakutsiz, herria 2007ko aurrekontuekin laga dutelako berriz ere. Soraluze FTko zuzendaritzakide batek Udalbatzarrean adierazi zuen moduan, *"abstentzio bakar bat nahikoa zen" Udal Gobernuarekiko ezadostasun garbia adierazi eta herriari aurrera egiten uzteko.*

Udal Gobernuaren elkarlanerako ahalegina

Udal Gobernuaren elkarlanerako borondate falta izan da oposizioak blokeo estrategia argudiatzeko erabili duen aitzakia nagusia. Baina argudio horrek ez dauka sinesgarritasunik, Soraluzetar guztiek dakitelako Udal Gobernu honek inoiz egin ez den moduko ahalegina egin duela, aurrekontuak oposizioarekin eta soraluzetarrekin batera adosteko.

"Baina mesedez, argitu dezakezue zein egitasmorekin ez zaudeten ados?"

"Baina mesedez, argitu dezakezue aurrekontuetan jasotako zein egitasmorekin ez zaudeten ados?" galdetu zuen herritar batek Udalbatzarrean. Tristea da esatea baina hartu duten jarrerak argi erakutsi du, Soraluzeko PNV, PSE eta PP gero eta urrunago daudela soraluzetarren eskari eta iritziengandik. *Blokeo estrategia honek, soraluzetarrekin adostuta genituen dozenaka egitasmo bide bazterrean utzi ditu; igogailuak, eguneko zentrua, futbol zelaia, taldeentzako dirulaguntzak…*

Herritarrei Udaletxeko jardunean parte hartzeko deia

Orain, inoiz baino gehiago, herritarren parte hartzea bultzatuko dugu. Horregatik *inoiz baino dei ozenagoa egiten diegu soraluzetar guztiei Udaletxeko jardunean parte hartzen segi dezaten. Horixe da horrelako blokeo egoera antzuak ez errepikatzeko bide bakarra.*

Eskerrak eman nahi dizkizuegu etengabe zuen iritzi eta ekarpenak helarazten diharduzuen soraluzetar guztioi. Eskerrik asko. Horrek gure lana hobeto egiten laguntzen digu.

Oposizioko alderdiei *(EAJ, PSE eta PP)* berriz, herrian gero eta ozenago entzuten den eskari bat. Utzi herriaren garapena oztopatzeari eta laga Udal Gobernuari lan egiten.

Gure aldetik, ilusioz eta gogoz jarraituko dugu lanean. Soraluzetarrekin batera, 2009an egitea aurreikusitako egitasmo guztiak garatuko ditugu eta behingoz gure herritarrei merezi dituzten zerbitzuak emango dizkiegu.

Soraluzen 2009ko otsailaren 24an
Soraluzeko Udal Gobernu Taldea

Pil-pilean

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe
Erredakzio batzordea: Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi
Logotipoa: Pablo Galarraga eta Silvio Vaz
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SORALUZEKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik

Loiola Altuna

Soraluzeko herritik

Soraluzeko herritik/ dator notizia/ aurrekontuak bota/ dituztela atzera.

Eta ez da ez berri ona, kontutan izanda gainera, hiazkoak ere atzera bota zituztela.

Herriak, gizakiok bezalaxe, odola behar du aurrera egiteko eta udal-aurrekontuak dira transfusio bide nagusia. Odol berria, proiektu berrientzat. Baldintza hauetan 2007an onartutakoak dira balio dutenak, baina noski, duela bi urtekoekin aurrera egiteak anemia arriskua dakar.

Iragan astean herritar baten deia jaso nuen. Kezkatuta zegoen Ezozi futbol zelaiko egoeraz.

Foru Aldundiak futbolzelaia konpontzeko diru laguntza prest izanarren, Udaletxearen baiezkoa ezinbeztekoa zela esan zidan. Alderdi politikoekin hi-tzegin zutela eta denak konponketaren alde zeudela, baina herrian aurrekontuak aurrera aterako ez zirenaren susmoa zegoela gaineratu zidan.

Udaletxetik diote proiektua aurrera ateratzen saiatuko direla. Agian deitu zidan herritarrari, eta beste hainbati, konponketaren alde zeudela esan eta aurrekontuen aurka egin duten alderdiek, ezezkoak ekarriko lituzkeen ondorioak argitu beharko lizkiokete; agian 2007ko odolak Ezozi futbol zelaira igo-tzeko presiorik ez duelako

((ENTZUTEKUAK))

Soraluze Futbol Taldeko zuzendaritza batzordeari elkarrizketa

Zein da Soraluze Futbol taldian egoeria?

Oin momentuan itxaropentsu gauz, futbol zelaixa behingoz egingo dala uste dogu eta. Gauzak ez dira guk nahi moduan atera eta horrek tristetu egitten gaittu baina itxaropena beti izan bihar da.

Zer bihar dau Ezoziko futbol zelaixak?

Zelaixa hobetu, belar artifiziala jarri, aldagela eraberrittu eta azken finian, instalazio guztixak hobetu bihar dira. Gure neska-mutilek izugarrizko meritua dake! Eurixa daguanian, putzuak sortzen dira eta beruakin hautsa harrotu egitten da. Gogorra da holako egoerian bertan jokatzia.

Gure neska-mutilek izugarrizko meritua dake! Gogorra da holako egoerian bertan jokatzia

Zenbateko kostua izango dau futbol zelaixa eraberritziak?

800.000 eurokin behintzat belar artifiziala jartzeko aukera izango dogu. Gure asmua da baitta be, aldagela gehixago jartzia; jokatuko daben talde guztixek aldatzeko lekua izateko.

Nundik lortu bihar dozue finantziazioa?

Espero dogu, proiektuan erdixa Diputazinuak finantziatzia, hau da, 400.000 euro ematia zelaixa eraberritzeko eta gainontzekua Udaletxetik etortzia, beste 400.000 euro.

Zein izan da Udaletxeko ordezkarixen jarreria?

Batzar Orokorrian aurrekontuak eztabaidatu baino lehenago, ordezkari politiko guztixekin bildu ginan. Danak ados dauz futbol zelaixa eraberrittu egin bihar dala, modu batera edo bestera.

Zein izango da Sorako etorkizuna?

Zelaixa eraberrittu ezian, uste dogu erregional taldia desagertu egingo dala. Batzordia osatzen dogunok be egoeriaz nekatuta, maiatzian giltzak Udaletxian utziko dittugu.

Egixa da Sorako taldia desagertzeko arriskua daguala?

Bai egixa da. Irtenbide ekonomikua aurkittuko dogula uste dogu baina bestela, esaten dogun moduan, gaur egun Sorako batzordia osatzen dogunok gure ardurak bertan behera utziko dittugu. Nahi dabenak baina, aukeria izango dau taldia berriz sortu eta osatzeko.

PASCUAL CHURRUCA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

HNOS. BENITO ANAIAK
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Emakume Langileen Eguna ospatzeko ekimenak

"Cruzadas cotidianas" antzezlaneko aktorea

Martxoaren 8a Emakume Langileen Nazioarteko eguna da eta horren harira egitaraua prestatu du Udaleko Emakume Batzordeak.

Martxoaren 7an, zapatua, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitartean *"Sexualitatea eta generoa"* tailerrean parte hartzeko aukera egongo da, kiroldegiko erakusketa aretoan. *"Nola bizi dugu emakumeak sexualitatea?"* du izenburua aipatutako tailerrak eta Eider Goiburuk dinamizatuko du. Izena emateko, Udaletxera deitu edo bertara jo. Martxoaren 8an, domeka, eguerdiko 13:00etan kontzentrazioa deitu dute Plaza Barrixan.

Antzerki emanaldia

Cristina Castillok antzeztuta, *"Cruzadas cotidianas"* antzezlana ikusteko aukera egongo da martxoaren 14an, zapatua, kiroldegiko sarreran gaueko 22:15ean.

Soraluze Futbol Taldearen prentsaurrekoa

Otsailaren 14an Soraluze F.T.-ko jolarari eta zuzendariek Ezozi futbol zelaiaren egoera salatu eta konpontzeko eskaera egin zuten. Futbol zelaia konpondu ezean, Soraluze F.T-ak bere jarduna eteteko arriskua dagoela ohartarazi du.

Motordun bat hil da istripuz

Hilaren 15ean Bergarara norabidean, Soraluzetik pasatzen den GI-627 errepidean motordun batek istripua izan zuen eta kolpearen ondorioz hil zen. Bergaratarra zen eta 34 urte zituen.

Lapurretak herrian

Udaltzainen esanetan, hilaren 17an, gauez, bi gazte Txuritxu goxodendara sartu eta lapurreta egin zuten. Alarmak jo ostean, jabeak bi lapurrak ikusi ahal izan zituen eta jarraian, ertzaintzak Eibarko sarreran dagoen errotondan harrapatu zituen. Anparo dendan ere sartzeko saiakera egin zuten. Atea zerbait bortxatu arren, ez zuten ezer lapurtu.

KZgunea martxoan arratsaldez egongo da zabalik

Astelehenetik barixakura, 16:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte KZguneko ateak. Bertako arduraduna Aitor Madrid da eta hilabete honetan ere IT txartelak eskuratzeko azterketak egingo dira bertan. Txartel honek, oposaketetan puntuak izaten laguntzen du.

AZTERKETEN EGUTEGIA:

Martxoaren 4an,
Asteazkena 18:00etan

Martxoaren 10ean,
Asteartea 18:00etan

Martxoaren 25ean,
Asteazkena 16:00etan

Martxoaren 27an,
Ostirala 16:00etan

Martxoaren 30ean,
Astelehena 16:00etan

Soraluzetik 250 kilo Saharara

Guztira, 250 kilo janari batu dira herrian Saharara eramateko. Antzuolan 678 kilo, Bergaran 3508 kilo eta Elgetan eta Angiozarren 100 kilo jaso dira guztira

Soraluzeko Txuri-Urdinak Elkarteak 6 urte beteko ditu

6. urteaurrena ospatuko du Txuri-Urdinak Elkarteak asteburu honetan.

Zapatuan, hilak 28:

12etatik 14ra eta 16etatik 19etara puzgarriak egongo dira Plaza Barrixan. Eguerdiko 13etan berriz, buruhaundiak txikientzat eta 14:30ean Bazkaria egingo dute Txurruka jatetxean.

Domekan, martxoak 1:

11tan zaldi erakusketa egongo da. 12etan salda, txorizoa eta ardoa Plaza Zaharrean eta 12:30ean bazkide gazteenei opariak banatuko zaizkie. 13:30ean bazkide taldearen argazkia aterako dute.

Matxoaren 5ean, osteguna:

19:30ean Elkartearen Batzar Orokorra egingo dute Txoko kafetegian.

Abesbatzaren kontzertua

Martxoaren 7an Soraluzeko abesbatzak Sanbiator (Gasteiz) abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko du arratsaldeko 20:00etan Elizan.

Jubilatuen Batzarra

Datorren martxoaren 3an Itxaropena Jubilatu Etxean Urteroko Batzar Nagusia egiteko bi deialdi egin dituzte. Lehenengoa 17:00etan izango da eta bigarrena 17:30ean. Besteak beste, pasadan batzarreko akta hala badagokio onartu, dirukontuak eta 2008ko bazkide mugimenduak landuko dituzte bertan.

2009rako Udal aurrekontua ez da onartu

Udal aurrekontua eztabairatu zen osoko bilkura.

Hilaren 18an egin zen Osoko Bilkuran Udal Gobernu taldeak aurkeztutako Udal aurrekontuak aldeko 5 bozka **(ANV 3 eta EA 2)** eta aurkako 6 **(PP 1, PNV/EAJ 3 eta PSE/EE 2)** jaso zituen. Ondorioz, 2007ko aurrekontua luzatuko da berriz ere. Saio Aretoa jendez beteta zela hasi zen Udalabatzarra.

Oposizioaren arrazoiak ezetza emateko

EAJ alderdiak ezezko bozka eman zuen bere "emendakinak Udal Gobernu Taldeak kontutan hartu ez dituelako". Alderdi honek 2009an egitea proposatzen zituzten egitasmoetako batzuk 2010ean egiteko konpromisoa ez dela nahikoa adierazi zuen Iker Aldazabalek. PSE-EE alderdiak berriz, akordiorako borondate falta egotzi zion Udal Gobernu Taldeari. PP alderdiak ezezkoa emateko ondorengoa argudiatu zuen: *"ezezkoa eman dugu, preso politikoen senideei luzatzen zaien dirulaguntzagaitik eta baita Herri urrats, Kilometroak eta Nafarroa Oinez egiteko luzatu nahi den dirulaguntzagaitik ere"*.

Udal Gobernuaren iritzia

Udal Gobernuak bere *"atsekabea"* adierazi zuen oposizioak hartutako jarreraren aurrean eta alderdi interesak herriaren interesen aurretik jarri izana aurpegiratu zieten oposizioko alderdiei. Gainera, *"PSE eta PPrekin batera oposizioko hirukoa osatu eta Udal Gobernuaren aurkako boikot sistematikoa"* egitea leporatu zien Roke Akizu zinegotziak. Etorkizunean, ilusioz lanean jarraitu eta egitasmoak beste bide batzuetatik aurrera ateratzeko ahalegina egingo dutela adierazi zuen Jose Luis Arizaga *"Txipi"* alkateak. Orain, hilaren 31an, 2008ko ziklo ekonomikoa itxi eta kreditu aldaketak egiten hasteko asmoa du Udalak. Azken hau, 2007ko aurrekontua 2009kora moldatzean datza, aurtengo beharretara egokitzeko. Kreditu aldaketak onartzeko gutxienez oposizioaren abstentzio bat beharko da.

Euskararako bidaiariak protagonista

Aurtengo Korrika berezia izango da Soraluzen. 16. Korrika honetako protagonistak euskaraz ikasten diharduten pertsonak izango dira. Azken datuen arabera, 50 lagun baino gehiago dira Soraluzen euskaraz ikasten dihardutenak. Espainiatik, Kataluniatik, Hego Ameriketatik, afrikatik, Europako beste lurralde batzuetatik etorritako lagunak. Baita bertan euskararik ikasterik izan ez duten euskal herritarrak ere. Eurak izango dute protagonismo osoa aurtengo Korrikan. Halaxe erabaki du Korrika batzordeak.

Euskarara egiten diharduten bidaien berri emateko eskatuko diete, ondoren herri guztian zabaldutzeko. Jokaera eredugarria delako. Datozen asteetan emango du jakitera batzordeak, ze ekitaldi antolatuko dituen Korrika Kulturalaren barruan.

GORA

Euskarazko kartelak

Soraluzeko Txirridulari taldeak euskaraz atera ditu bere kartelak. Garbi erakutsi du talde honek, txirrindularitzarekin ezezik, euskararekin ere konpromiso sendoa duela.

BEHERA

Estrategia eskaxa

Iragarki hau jarri duenak ez du Soraluzeko euskaldunengan pentsatu. Nahiago izan du dena gaztelera hutsez idatzi eta euskararik tarterik ez uztea. Estrategia eta jarrera eskaxa, %70ak euskaraz dakien herrian.



ZER EGIN?

Etorkinei euskararen berri eman

"Kanpotik datorren jentia euskaraz ikastera gonbidatu bihar dogu. Euskaraz ikastiak herriko eguneroko bizitzan ekarriko dotsazen abantailen berri emonaz."

Askotan, kanpotik datorren jendeak ez daki hemen bi hizkuntza erabiltzen ditugunik. Hala ere asko elebidunak izaten dira, euren herrialdean ere hizkuntza bat baino gehiago dituztelako. Euskaldunon zeregina da, euskararen herriaren berri eman eta ikastera gonbidatzea. Hori lortzeko modurik onena, tartean tartean beldurrik gabe euskaraz egitea eta euskaraz ikasteko aukeren berri ematea da.

Hezkuntza afektibo sexuala

Soraluzeko DBHko institutoan laugarren mailako ikasleek hiru egunetan hezkuntza afektibo sexuala landu dute. Bertan gai hauek tratatu dituzte: antisorgailuak, gaixotasunak, lehenengo aldia...

Arnaitz, Andoni eta Asier

Antikontzeptibo mota asko daude: kondoia, hurrengo eguneko pilula (azken hau, hobeto esan, abortiboa da), diafragma, nesken kondoia, pilulak...

Gazteen artean gehien erabiltzen dena kondoia da. Pilulak ere bai, baina hauek arazo bat dute: ginekologoaren baimena behar da eta hau ez da kontu erraza neskatila gazte batentzat.

Bukatzeko gauza bat azpimarratu nahi dugu: garbi gelditu zaigu ezin direla harreman sexualak eduki aurretik neurriak hartu gabe.

Alvar, Unai eta Haritz

Oso esperientzia ona izan da eta asko ikasi dugu gure artean hitz egiten. Ikastaroa eman zuenak hainbat gauza azaldu zizkigun eta ez genekizkien gauzak erakutsi ere. Adituak lagun modura tratatu gintuen. Gure ustez oso egokia izan da ikaskuntza hau gazte guztiei erakusteko.

Miren, Nerea eta Sheila

Aste honetan sexologiako hiru saio eduki ditugu. Bertan, neska batek gai honi buruzko informazioa eman digu. Gauza hauek ondorioztatu ditugu: gau batean batekin baino gehiago liatzea eskubidea

dela, inoren propietatea ez zarelako. Bakoitzak nahi duena eta nahi duenarekin egon dadila. Sexu hitza entzutean beti harreman sexualetan pentsatzen dugu baina ez dela hori bakarrik. Gauza gehiago daude ezagutzeko eta pena merezi du emozio berri horiek bizitzea.

Iratxe eta Elene

Aste honetan, Hezkuntza Afektibo Sexualeko hiru klase izan ditugu, bakoitza bi ordukoa, guztira sei ordu astean. Klase hauetan, besteak beste, sexu transmisiozko gaixotasunak ikusi ditugu, hauek prebenitzeko metodoak, haurdun geratzean zer egin dezakegun... Azkenengo egunean denok borobil batean jarri eta eztabaida bat izan genuen adarrak ipintzeari buruzkoa. Ikastaroa eman duen neskak esaten zuen, inor ez zela inoren propietatea eta ondo zegoela hori egitea. Baina gu horren kontra gaude, ez zaigu ondo iruditzen.



2009ko ARATUSTEAK HERRIAN

GANBAK TABERNAN
Langosta izatia nahi daben ganba kuadrila.

OH YEA!
Elvis bere korukoak kontzertuaren aurreko entsaioan.

DANTZARI GAZTIAK
Urrats dantza taldeko dantzari gaztiak andereño Mirentxukin.

BI MUTILTXO
Txupete haundi xamarrak ahuan sartzeko ezta?

DALAI MIX
Dalai Lama eta bere lagunak meditazio saiora bidean.

HERRI AFARIA
Txokoan harrapatutako irudi tipikoa. Kaixo!

MADE IN SORALUZE
Batukadako gazte kuadrila kalez kale ibili zan.

2009ko ARATUSTEAK SORALUZEN

MARRAZEN TRIPAK
Marraz tripa bistan eta txarangako direktoria zapatuko kalejiran.

ELKARBIZITZA KOKTELA!
Kamareruak, hipixak eta morua elkar bizitzen.

ESPLOTA, ESPLOTA,MES, PLO...
Eskoziarrak eta italiarrak bero bero eginda.

Ugaraxo Albistea

HAUR HEZKUNTZAKO 3 URTEKOAK ARATUSTIETAN

Urtero bezala, aurten ere eskolan aratuste jaia ospatu genuen.
Pirataz jantzita, jo ta ke ibili ginen abesten, dantzatzen eta emanalditxoa prestatzen.
Eskolako patioan giro alaia eta jatorra sortu ondoren, merezitako merendola egin genuen.

Espero dugu zuek ere guk bezain ondo pasatu izana!

TARRAPATATA PIRATA

SORBALDAN BETI BERRITSU LOROA
BEGI BATEAN PARTXE BAT DAUKA
ETA EZPATA TINKO HARTUTA BADOA
HANKAPALOA HERRENKA.

OOOO! TARRAPATATA PIRATA
OOOO! JOAN NAHI NUKE ZUREKIN
ITSASONTZIAN ALTXOR BATEN BILA
BANDERA BELTZA GUREKIN.



Ezagutzen dozu Kukumixo Aisialdi Taldia?

...eta zer egittia gustatu jatzun beraiekin?

Bai, ezagutzen dot Kukumixo eta neri irteera bat egittia gustatuko jatan beraiekin. Itsasua ikusteko irteera bat antolatzia nahiko neban, egun batekua eta hondartza ezagutu.

Bai, Gatañerre egunian beraiekin egon ginan baserriko jolasak egitten eta oso ondo egon zan. Neri itsasora juatia gustatuko jatan, eguraldi onakin!! Normalian ez daukagu aukera hori eta! Bizkaia aldia edo ikustera juango nintzan.

Kiroldegixan egon ginan behin Kukumixokuekin jolasak egitten eta primeran pasatu genduan. Ez dot pentsatu oin arte baina ideia ona izango zan beraiekin irteera bat egittia, hondartzak ikustera, adibidez. Batez be olatu haundixak daguazen lekura

Kukumixokuekin behin kiroldegixan egon ginan jokuak egitten. Edozer antolatzen badabe be ni gustora juango naiz. Neri, PIN-era irteeria egittia gustatuko jatan, lagunekin ondo pasatzeko.

TXISTEA ETA SUDOKUA

- Aita, handia egiten naizenean amonarekin ezkonduko naiz.
- Baina, semetxo, nola ezkonduko zara ba nire amarekin. Eta zu ezkondu zinen ba nirearekin ...

SUDOKU

		2		3		6	5	7
		7	6					
					8		9	
1				8				4
	4		2		3		1	
2				7				3
	7		8					
					4	7		
3	9	1		6		8		

ZER IRISTEN DOTSAZU?

Martxoaren 8a egun seinalatua da mundu guztiko egutegietan; izan ere, emakumearen nazioarteko eguna ospatzen da. Egun horretan, emakumearen parekidetasuna lortzeko eskubideak aldarrikatzen dira.

Parekidetasuna lortzeko bidian, zertan egin bihar dogu indar gehixen?

JOSE MARI GOMEZ
Langabezian

Nere ustez, herri mailan parekidetasuna Udaletxiak bultzatu bihar dau eta baitta ikastoliak be, heziketan gai hau lantzia ezinbestekua pentsatzen jata eta. Boterian darenak egin biharko dabe indarra batez be.

TXARO LETE
Langabezian

Danok egin bihar dogu indarra gizonezkuen eta emakumezkuen artian parekidetasuna lortzeko. Udaletxetik, Gobernutik eta ahal dan eta eragile gehixen inplikatu biharko dira.

PURI PEREZ
Etxekoandrea



Uste dot boteria daukenak bultzatu biharko leukiela parekidetasuna gizonezko eta emakumezkuen artian. Emakumiek badakagu zer esan gai honi buruz, baina boterian darenak kasurik egitten ez badabe, ez goiaz inora!

RAFA ARIZNABARRETA
Torloju egilea

Nere ustez, gizarte osuak egin bihar dau indarra parekidetasuna lortzeko, baina batez be gizonezkueri tokatzen jaku kasu honetan zerbait esatia. Hezkuntzan be landu biharreko gaixa dala pentsatzen jata.

KOMIKIXA

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17
Altzairuen fabrikazioa:
- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

REZOLA SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Pil-pilean euskara elkarteak antolatuta

Eguna:
Martxoaren 14an (zapatua)

Irteera:
Eguerdiko 12:30ean

Izena emateko epea:
Martxoaren 8a arte

Izena emateko modua:
Pil-pileanera deitu
943 75 13 04,
Iratxo goxodendan edo idatzi
koordinazioa@pilpilean.com

Prezioa:
30 euro bazkideak
35 gainontzekoak

Jai Batzordearen deialdia

Udalak aurtengo Santa Ana eta Andramari jaiak antolatzeko lehendabiziko bilera antolatu du martxoaren 3an, martitzena, arratsaldeko 19:30ean. Bertara gonbidatu nahi ditu herritarrak nahiz elkarteak.

Dantzari eguneko bideoak behar dira

Urrats Dantza Taldeko dantzariak, orain dela lau urte ospatu zen azken Dantzari Eguneko bideoak behar dituzte. Bideoak Pil-pilean Euskara Elkartean utzi edo Iratxo goxodendan.

Mila lagun baino gehiago Biribiltxoren erakusketan

Bisutsa. **José Agustín Gurruchaga**

Eskista. **Benito Cantero**

Kontrargi Argazki kolektiboak jakitera eman duenez Biribiltxoren argazki erakusketak harrera bikaina izan zuen. Guztira 1.131 bisita izan zituen, eta iritzien atarian jasotako ekarpenak oso onak izan direla aipatu dute antolatzaileek. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkie erakusketan parte hartu duten guztiei, Soraluze Kooperatibari, Udaletxeko Kultura Sailari eta bereziki Biribiltxoren senideei; denon artean posible izan delako bere lanak ezagutzera ematea. Bestalde, hilaren 23tik aurrera, Angel Bolumburu *"Biribiltxo"*ren erakusketan eskatutako argazkien kopiak hartzeko aukera zabalik dagoela ere aipatu du argazki kolektiboak *(Errabal, 5-1ean duen lokalean)*. Ordutegia, astelehen arratsaldetan 19:30etatik 21:00etara *(martxoan)*.

Martxorako erakusketa

Mendia gai moduan hartuta, Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxaga bergaratarren argazkien erakusketa antolatu du Kontrargik. Martxoaren 10etik 29ra bitartean, kiroldegiko erakusketa aretoan egongo dira argazkiak ikusgai.

ORDUTEGIA:
Astelehenetik barixakura, 19:00etatik 20:30etara

Zapatu eta domeketan, eguerdiko 12:00etatik 13:30etara.

6 soraluzetar Andoaingo piano jaialdian

Hilaren 14an eta 15ean Andoaingo piano jaialdia ospatu zen. Musika Eskolatik herriko 6 ikaslek hartu zuten parte: Elsa Berrueta, Julene Zabala, Maialen Oregi, Alejandra Rodriguez, Javier Arana eta Abigail Monserrate. Guztiek, zilarrezko domina lortu zuten.

Mikel Landak irabazi du Soraluzeko XII. Txirrindulari Saria

Iturria: Mario Laskos

Mikel Landa helmugara bidean

Iturria: Mario Laskos

Lasterketako irabazle guztiak

Hilaren 22an jokatu zen Soraluzeko Kirol Elkarteak antolatuta Soraluzeko XII. Txirrindulari Saria. 134 txirrindularik hartu zuten parte, 23 urtez azpikoak denak. Korritzeko eguraldi ona izan zuten txirrindulariek eta 105 kilometroko ibilbidea egin zuten.

SAILKAPENA

1 Mikel Landa (Naturgas)
2 Ruben Garcia (Caja Rural)
3 Alberto Morras (Seguros Bilbao)

MENDIKO TXAPELDUNA

Mikel Landa (Naturgas)

TALDEKA TXAPELDUNAK

Caja Rural

HERRIKO TXAPELDUNA

Mikel Hernandez

Binakako lehenengo ligaxka amaitu da

Joan den astelehenean, hilaren 23an, jokatu zuten Zubieta eta Xala bikoteak Binakako ligaxkako azkeneko partida eta 22-6 irabazi zuten Olaizola I eta Patxi Ruiz bikotearen kontra. Ligaxkako lehenengo lau partidak Laskurainek jokatu zituen Xalarekin baina eskubian izan zuen minarengaitik, bere ordez, Zubietak jolastu ditu azkeneko lauak. Nahiz eta aldeko tanto kopurua onena izan, azken orduan araudia aldatu eta ondorioz, Zubieta-Xala bikotea finalerdietatik kanpo geratu da.

EMAITZAK

FUTBOLA

Landetxa C.D. – Sora (Erreg.M)	2-2
Sora (Erreg .N.) – Touring	4-1
Bergara K.E. – Sora (Jub)	2-0
Sora (Kad) – Mutriku	0-8

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 28, 15:30ean Ubalaen
Amaroz – Sora (Erreg.M.)

Zapatua 28, 15:30ean Almen
Arizmendi – Sora (Erreg.N)

Zapatua 28, 16:15ean Ezozin
Sora (Jub) – Amaika Bat

Zapatua 28, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad.) - Zestoa

ZORION AGURRAK

Ongi etorri Jokin!
Otsailaren 7an jaioberria!
Muxu haundi bat etxekuen partez!

Yael Trigo Fajardo
2 urte betetzen dittuzulako! Zorionak etxeko danen partez!
Muxu haundi bat!

Koldo Etxaniz
Otsailaren 28an 10 urte!
Beti bezain jator jarraittu! Etxekuen partez!

Josune Saban
Otsailaren 24an 10 urte
Zorionak guraso, osaba-izeba eta amaman partez! Muxu haundi bat!!

Ainhoa Unamuno eta **Naroa Zubiaurre**
Otsailak 24 eta Martxoak 4
34 eta 3 urte!!
Muxu haundixak bixori etxekuen partez!

Ane eta Marga
Otsailaren 27an urtiak betetzen dittuzuelako!
Muxu haundi bana eta jator-jator jarraittu!

Ione, martxoaren 6xan 10 urte!
Miren, otsailaren 28xan 8 urte!
Gure etxeko trastueri...
Zorionak!! Besarkada haundi bat etxekuen partez!

Ainhoa eta Amaia Gonzalez
Martxoaren 5ean 5 urte eta otsailaren 24an urtebete!!
Zorionak eta patxo haundi bat etxekoen partez.

IRAGARKIAK

Alemaniar txakurkumeak salgai: bi eme eta har bat L.O.E-an inskribatuak. Interesatuak deitu zenbaki honetara: **633 30 17 22**.

jaiotakoak

BEÑAT GARMENDIA OREGI
IKER AITOR ROMERO PAREDES

hildakoak

MARCELO GUENETXE LAZPITA
VICENTE SANCHA MATEO

LEHIAKETA

▶ **Zenbat baserri dare Txurruka auzuan?**

1- 15
2- 18
3- 20

▶ **Saria:**
Gogortuz-en fisioterapia saioa.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

▶ **Irabazlea: Anjelika Pia**

▶ **Futbol zelaixa...**
Soraluzeko futbol zelaixa 1981. urtian inauguratu zan, oin dala 28 urte.

▶▶▶▶▶▶▶▶▶ deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** ◀◀◀◀◀◀◀◀◀◀◀◀

Argazki zaharra

Iturria: Juan Manuel Berrueta

Aintzinako aratustiak

Aratustietako argazki zaharra. Erizainez, sebillanaz eta inudez jantzita ageri da emakume taldia. Argazki edarra da baina zoritxarrez ez dakigu zein diran eta nun etarata daguan.

Benan Rodriguez

IX. URTEURRENA
2000ko otsailaren 28an hil zen
Goian bego

Atzo nire konpainian,
Gaur nire oroimenean,
Betirako nire bihotzean!

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardineta, 3
20600 Eibar

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA 2008/2009
MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 26tik martxoaren 18ra

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian. Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo 943 20 06 18 telefonoan.

Fresatzeko Teknologia

Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua

Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin

Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua

SORALUCE
DANOBAT GROUP

SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

MONDRAGON
HUMANITY AT WORK
Finance Industry Retail Knowledge

Eman botua **Eusko Alkartasunari**